

Soldata arrakala ez da kantitate kontu hutsa, arazo politikoa da

✘ Soldata arrakala sistemak erabiltzen duen tresna da, emakumeon* lanei balioa kentzeko, lan horiek doan eskuratzeko, gutxiago ordaintzeko, jardunaldi partzialak eta aldi baterako kontratuak inposatzeko eta zaintza lanak egitera behartzeko, sistema kapitalista heteropatriarkalak lan horiek guztiak premiazkoak baititu, bere horretan irauteko eta irabaziak lortzeko.

Generoaren arabera soldata arrakala ez da kopuru hutsa, ez da akats bat, ez doikuntza falta, ez da kasualitate, zorigaitz edo sistemaren eragin kolateralala ere. Sistemaren tresna da, sistema bera da. Soldata arrakalak islatzen du lanak ezberdin balioztatzen direla sexuaren arabera lan banaketarekin. Honela, gezurrezko bereizteka erabilia, lanak "maskulino" edo "femeninotzat", "produktibo" edo "erreproduktibotzat" klasifikatzen dira eta balio sozial, ekonomiko eta politiko handiagoa ematen zaie gizonezkoek egiten dituzten horiei (produktibotzat definitzen direnak) emakumezkoek* egiten ditugunei baino (erreproduktibotzat definitzen direnak). Klasifikazio hau ez da zerbait naturala, sistema kapitalistak, bere intereserako, eraiki egin du.

Ez da kasuala. Lanaren, denboraren eta enpleguaren antolakuntza sozialarekin guztiz lotuta dago: nork egiten duen zer, nola eta zenbat denboraz eta zeren truke. Doan edo gaizki ordaindurik egiten diren (gehienbat emakumeok* egiten ditugun) zaintza lanen bitartez, sistema kapitalistaren iraupena bermatzen da. Zaintza lanek egiten dute bizitza posible eta sistema kapitalistak hau guztiz beharrezkoa du sistema bera betikotzeko. Halaber, sistemak ahaleginak eta bi egiten ditu zaintza lanak doan egin ditzagun edo, merkantilizatzen direnean, gutxi ordainduak izan daitezten. Hainbat eremutan eta hainbat modutan ikus dezakegu zelan egiten den hau; adibidez:

- Industria sektore guztiz maskulinizatua da eta ez da apenas emakumerik* kontratatzen.
- Emakumeak* zaintza lanetan, merkantilizatueta zein merkantilizatuta ez daudenetan, gainordezkaturik gaude.
- Sektore publikoan feminizaturik dauden lanak azpikontratatzeko dira eta honek soldata arrakala handiagoa sortzen du.
- Jardunaldi osoak galarazten dizkigute eta emakumeontzat jardunaldi partzialak eta aldi baterako kontratazioak bultzatzen dituzte, baita saritu ere. Honela, zaintzen ardura hartzera behartzen gaituzte, sistema ez baitago prest bere gain hartzeko, hala egitekotan ez lituzkeelako irabazi berberak izango.
- Etniaren arabera lan banaketa, soldata arrakala gehiago sortzen dira: lanik gogorrenak, gutxien ordaindu eta arautuak eta esplotazio egoera latzenekoak beste jatorri batzuetako pertsonen egozten zaizkie. Hala nola, etxeko lanak, eraikinen garbiketa, etxez etxeko laguntza...

Eta hau guztia lan merkatuaren prekarizazio orokortuaren testuinguruan.

Pasa den urtean, LABek enpresei soldata arrakalaren inguruko datuak eta honekin amaitzeko neurriak eskatu zizkien. Oso gutxi erantzun ziguten. Bakar batek ere ez zuen neurririk martxan ipini.

Aurten instituzioak interpelatzeko ditugu zuzenean: Eusko Jaurerria, Nafarroako Gobernua, Emakunde, Nafarroako Berdintasun-nerako Institutua, aldundiak, udalak... ez dutelako honi dagokionez ezer egin, plan instituzionalekin engainatu nahi gaituztelako, emakumeon* lan baldintzetan ardura zuzena daukatelako, ez dituztelako enpresak behartzen benetako neurriak hartzera, soldata arrakalak bere horretan iraun dezan uzten dutelako, azpi-kontratak bultzatzen dituztelako euren enpresen mesedetan eta, honela, soldata arrakala legeztatzen dutelako, gure bizitzak erasotzen dituen sistema kapitalista iraunarazten dutelako, arduragabekeria politikoaz jokatzeko dutelako.

Horregatik, planto egiten dugu! Sistema honetan sinesten ez dugulako,

Kapitala hautsi Bizitzari eutsi

M8an kapitalismo heteropatriarkalari planto!